



ESKU PELOTA

Lizeaga etxean gaur, finalerdian

Markel Lizeagag etxean, kiroldegian jokatuko du gaur Gipuzkoako finalerdia, 21:00etan, Bergarako Eneko Muguruzaren kontra. Asteburuan ere partidu gehiago izango dira; besteak beste, bihar hasiko da Hernaniko Pelota Eskolako Gabonetako Torneoa. ||

EREÑOTZU

Hiru talde, elizan

Eguberrietako kontzertua izango da gaur, Ereñotzuko San Antonio elizan, 19:00etan hasita. Elkarrekin ariko dira Ozenki abesbatza, Doinu Zaleko akordeoi orkestra eta Txirrita ikastolako gaztetxoak. ||

PRESO ETA IHESLARIAK

Zinkoenean, gaur

Preso eta Iheslarien senideek, ostiraleroko deialdia egin dute; gaurkoan, 20:00etan Zinkoenean egingo da kontzentrazioa. ||

JOCC ZIKLOTURISTAK

Lizentzia berria, gaurtik

Lizentziak berritzen ari dira JOCCeko zikloturistak, 2018rako. Nahi duenak eskaera egin dezake jocczikunako@gmail.com helbidean; edo gaur eta hilaren 29an, 20:00etatik 21:00etara, Transpacarreko lokalean. ||

DIRULAGUNTZAK

Laguntzak, kirol eta alokairuan

Asteazkeneko GAO'n argitaratu ziren Hernaniko kirol jarduerarako dirulaguntzen oinarriak. 15 eguneko epea dago eskaerak egiteko, kiroldegian edo www.hernani.eus helbidean. Bestalde, 2017ko irailetik 2018ko abuztura arteko etxe alokairuak ordaintzeko laguntzak ere, eskatu daitezke. ||

ERRUGBIA

Zozketa, gaur

Gaur egingo du Hernani Errugbi Elkartek, hiru iberiko eta ardo loteen zozketa: Plaza Berriko dendan, 20:00etan. ||

'HERNANI' MUSIKA ESKOLA PUBLIKOA

Gabonei ongiatorria musikarekin, bi saiotan

Musika Eskolako ikasleak kalejiran aterako dira gaur 17:00etan, Plazatik; eta iluntzeko 19:30etan, Milagrosan, Dakapo abesbatza eta Leokadisti txistulari taldea ariko dira, Eresoinka txarangarekin.

MUSIKAK blaitzen du Hernani askotan, eta zer esanik ez, Gabonen bueltan. Gaurkoan, 'Hernani' Musika Eskola Publikoko ikasleek bi saio emango dituzte, eta horietako bat, berezia.

Gaztetxoek, kalejira

Aurreneko zita arratsaldeko 17:00etan jarri dute, Plazan, kalejiran abiatzeko. Ikasle gaztetxoek, Gabon doinuak kantatu eta joko dituzte, kaleetan barrena.

Olaizolak bultzatutako

Eresoinkak, 80 urte

Bigarren zita, berriz, 19:30etan izango da, Milagrosan. Urtero bezala, musika eskolako Dakapo abesbatzak eta Leokadisti txistulari taldeak Eguberrietako kontzertua emango dute. Baina berezia izango da, aurtengoa.

Izan ere, Anitz musika elkarteak berreskuratutako Eresoinka taldea izango dute lagun. Aurten 80 urte betetzen



Anitz musika elkarteak Eresoinkaren errepertoria berreskuratu du, taldea sortu zela 80 urte betetzen direnean.

dira, Gabriel Olaizola hernaniarrak, beste batzuekin batean, Eresoinka talde sonatua bultzatu zuela. Talde honek euskal kantu eta dantzak Europa eta Ameriketara barrena zabaltzen zituen.

Horrela, gaurko emanaldiak lau zati izango ditu. Aurrenekoan, abesbatzak kantatuko du: *Mary Mary*; *The First Noel*;

Rin rin; *Kanpai soinu*, *zilar soinu*; eta *Halle, hallelujaj*.

Segidan, txistulariak ariko dira: *Eguberriko IV. alborada*; *Koledy eta Bizar zuri*.

Elkarrekin ariko dira gero, txistulariak eta abesbatza, bi pieza jotzen: *Aintza zeruan* eta *Gabonetako afari on bat*.

Eta bukatzeko, Eresoinka txarangak, hainbat pieza eza-

gun joko ditu; Gabriel Olaizola hernaniarraren *Haurtxoa sehaskan*, esaterako, eta *Itsasoa laino dago*; *Eusko gudariak*; *Ama begira zazu*; eta hernaniarrak tartean dituen *Huntza talde ezagunaren Aldapan gora* doinu arrakastatsua ere eskainiko dute.

Denei, ukitu berezia emango die taldeak. ||

KONTZERTUA ESNE BELTZA

Esne Beltza lagun artean, hamar urte ospatzen

Bi kontzertu emango ditu Esne Beltzak Hernanin, 10 urte bete dituela ospatzeko, eta gonbidatu bereziak izango ditu; gaur eta bihar izango dira, 22:30etan Biterin. Sarrerak aspaldi bukatu ziren.

AZKEN egunetan facebook bidez ari dira Esne Beltzako ki-deak, gaur eta biharko kontzertuen inguruko detaileak argitzen.

Izan ere, ez dira nolana-hiko kontzertuak izango. Taldeak hamar urte bete dituela

ospatzeko, *Hamar urte lagun artean* izenburupean bi kontzertu emango dituzte, gaur eta bihar, 22:30etan Biterin. Ez da sarrerarik geratzen.

Gonbidatu bereziak

Eta hain juxtu, lagun artean

joko dute bi kontzertuetan; hau da, gonbidatu bereziak ariko dira Esne Beltzarekin jotzen.

Oraingoz esan dutenaren arabera, gaurko emanaldian Kukai dantza taldea, Patxuko, Glaukomako Juantxo edota

Bad Sound Systemeko Moro igoko dira taula gainera.

Bihar, berriz, Kukai eta Patxuko berriro ikusteko aukera izango da, eta horrez gain, Fermin Muguruza eta Alaitz eta Mainerrek ere joko dute. Sorpresarik ez da faltako. ||

BAIKI
JANTZIAK
Zure zain gaituz
Zorionak! GABONAK DIRELA ETA opari ttiki bat erosketa bakoitzarekin!
Kale Nagusia, 9 - Hernani - Tel. 943 33 49 22

HATOR
AHOLKULARITZA
Fiskala, laborala eta Kontabilitatea.
Gure zerbitzuak euskaraz jasotzeko aukera duzu...
MAPFRE ASEGURUAK
Andre kalea 60, Hernani
Tel: 943 55 43 12
hator@euskalnet.net

Adarraga
Konfitegia
Pasteldegia
Urbieta Etorbidea 7
943 55 09 10

GABON HAUETAN
Opari txartelak
Produktuen pack bereziak
Plantxak
Lehorgailuak 50€-tik hasita
Uxue Legarreta
Nafar kalea 16A, Hernani
943 579 976

☎ TAXIAK: 943 550093 | UDALTAINGOIA: 943 248900 | DYA: 943 464622 | AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 | ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 | JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103 ☎ / Egunez: **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** / Gauzez: **Etxebeste** Elkano, 9 (Hernani) **943 552087**

EGURALDIA
GAUR Lainoak pilatuko dira zeruan, batez ere, eguerditik aurrera, eta aratsaldean euri pixka bat egingo du. Ipar-mendebaldeko haizearen eraginez freskatu egingo du. **Min.6° / Max.10°**
BIHAR Goizean lainotuta egongo da oraindik, eta tarteka euri pixka bat egin dezake. Arratsaldean argitzera egingo du. Iparaldeko haizea ekialdera aldatuko da pixkanaka. **Min.6° / Max.10°** (euskaime)

■ GURE ESKU DAGO



Agerraldia egin zuen asteazkenean Hernaniko Gure Esku Dagok, adierazpena publiko egiteko.

Espainiako Delegazioaren demanda medio, Udalaren dirulaguntza bueltan

5.400 euroko dirulaguntza itzuliko du Gure Esku Dagok, «ez baitugu nahi Udala kaltetzea, PPko Gobernuaren Ordezkariaren pertsekuzioa dela-eta».

AGERRALDI publiko baten birtartez, Hernaniko Gure Esku Dagok asteazkenean azaldu zuen Hernaniko Udalak emandako dirulaguntza itzuli egingo duela, Espainiako Gobernuaren Delegazioak jarritako demanda dela-eta; «ez baitugu nahi Hernaniko Udala kaltetzea», azaldu zuten.

«Erabakitze Eskubidearen aldeko lanean segiko dugu»
 Gure Esku Dagok azaldu zuen, «Erabakitze Eskubideari dagokionean, Madrilgo Gobernuak duen aurpegiarik ilun eta zapaltzaileena ikusten» ari dela azken boladan, eta ez

«Gardentasunez arituko ginela esan genuen GED sortu genuenean, eta honek asmo horri erantzuten dio»

Katalunian bakarrik.

«Errepresio politika hori, ez du PPk Kataluniara bakarrik mugatu. Gure herrian ere, Espainiak duen Ordezkari-tzak, demanda bat sartu du epaitegian Hernaniko Udalaren aurka, erabakitze eskubidea defendatzen duen Her-

naniko Gure Esku Dagori dirulaguntza bat emateagatik».

Laguntza hori 5.400 eurokoa dela zehaztu zuten, eta Udalar itzultzea erabaki dutela, «ez baitugu nahi Hernaniko Udala kaltetzea, PPko Gobernuaren Ordezkariaren pertsekuzioa dela-eta».

Agerraldi publikoaren zergatia ere azaldu zuten: «Gardentasunez arituko ginela esan genuen GED sortu genuenean, eta honek asmo horri erantzuten dio». Era berean, azpimarratu zuten «herritarrek dugun Erabakitze Eskubidearen aldeko lanean jarraituko» dutela. ■

☞ JASOTA BEZALA

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefona. ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak.

Unai Agirre eta Alfred Hitchcock

Unairen bertso bateko lau lerro komentatu nahi nituzke. Kasu honetan, gerra-kazetariaren aita dugu Unai:

*Telebistaren aurrean nago
 Ta ez det ikusi beharrik
 Bonba artean ari da hizketan
 Peto batekin bakarrik*

Lerro sinpleak dirudite. Bat ere brilorik gabeak. Baina, nire ustez, kazetariaren bideo kamara baten lana egiten dute. Eta kamarak bi mundu antagontza hartzen ditu, batean. Aitaren mundua eta semearena.

Baina, bi mundu antagontza horiek, gauza batean batzen dira: eguneroko errutinaren parte dira. Telebista aurrean egotea, errutina da,

noski. Baina, baitere, gerra: «... ez det ikusi beharrik, bonba artean ari da hizketan...».

Oso elementu gutxi azaltzen dira kamarak hartutako toma horretan: tehebista, bonbak, hizketa eta petoa. Halere, lau elementu horiek, esan gabe, aditzera ematen dutena, sakona da, oso.

Petoan, PRESS hitza jartzen duela, emango genuke. Alegia, frankotiratzaile batentzako diana perfektua.

Bonbak aipatuta, entzun gogor batek ere entzun dezake ezta dandak ateratzen duen burrunba, eta itsu batek ere ikus ditzake etxeak deseginda, eta jendea hilda.

Kazetaria hitz egiten ari da. Baina, ez zaio ezer ere entzun-

go: bonbek ahotsa ozenagoa ohi dute kazetari guztiek baino. Eta hori jakinda ere, gure kazetariak ez etsiko: «sema dago egoskorkeria» dio Unai hurrengo bertsoan.

Unairen lau lerro horiek, Alfred Hitchcock batek filmatuko luke eszena eder bat, bere suspense eta guzti.

Unai zioen, odolaren partez errimak zituela, zainetan. Berak jakingo du. Ni ziur nago, Unairen zainetan, Hitchcock baten odol berbera dagoena, irakiten, bor bor. Edo, Unai bota zuenean, «azken txanpa ematera olatu gainean», zer da hori, zinea egiteko kamara ez bada?

Jexux Eizagirre Portillo

■ UDAL LIBURUTEGIA

Komiki tailerra umeei, eta lehiaketa, denek

Izenematea irekita dago, 10-14 urtekoentzako komiki tailerrean. Bestalde, edonork parte hartu dezake galdera lehiaketan, urtarrilaren 3ra arte.

UDAL liburutegiak bi ekimen jarri ditu martxan, Gabon hauetan inor aspertu ez dadin; komikigintza tailerra eta, liburutegian jarritako Gabonetako zuhaitzari lotuta, galdera lehiaketa.

Tailerrean, izenematea

Komikigintza tailerra Ainara Azpiazu Axpik emango du, urtarrilaren 4an eta 5ean, 11:00etatik 12:30etara liburutegian. 10-14 urteko gaztetxoei zuzendua izango da, eta izena eman behar da liburutegian.

Aurreneko saioan komikigintzaren oinarriko elemen-

tuak ezagutu eta pertsonaia bat diseinatzen ikasiko da; eta bigarrenean, istorioa biñetetan zatitu eta narrazioa osatzen.

7 galderako lehiaketa

Bestalde, Gabonetako zuhaitza osatzeko Hernaniko argazki zaharrak erabili dituzte liburutegian, eta horiei lotuta, 7 galdera prestatu. Horiek erantzuteko epea urtarrilaren 3ra artekoa da, eta lau sari banatuko dira irabazleen artean, urtarrilaren 4ko zozketan: 40 euroko bono bana, Balantxa, Gaueko, Elkar eta Leokadisti dendetarako. ■

■ ATLETISMOA

Gonzalezen errekorra gainditu du, Toledok

Ainhua Toledo hernaniarrak azaroko torneoan 27,03 metrora jaurti zuen diskoa, Eibarren, eta horrekin, CD Hernaniko errekorra 27 urtez mantendu duen Ana Gonzalezen marka hobetu zuen; Gonzalezek 21,66 metrora jaurti zuen diskoa. CD Hernani Atletismo taldeak zoriondu egin nahi izan du Toledo. ■



Ainhua Toledo diskoa jaurtitzen.

Wukroren aldeko San Silbestre, 31n

Aurten ere, Wukroren aldeko San Silbestre lasterketa antolatuko du CD Hernani Atletismo taldeak. Ohi bezala, hilaren 31n egingo da 4km-tako lasterketa, 18:00etan hasita, eta izenematea irekita dago Ibai Mendi Kirolak dendan edo www.kirolprobak.com webgunean. ■

IRAGARKI MERKEAK

Tabena alokagai, erosteko aukerarekin. Karmelo labaka kalean, Hibai taberna. Deitu: 943 21 78 56

ETXKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK
 (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
 DIRUZ LAGUNDUA